

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek ordenantza honen arabera eskatuko du Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauan xedatutakoari jarraikiz. Ordenantza honen parte da Eranskina, eta bertan haztatzen da Derio udalerriaren baitako establezimenduaren egoera fisikoa eta kaleen zerrenda, kategorien arabera.

2. artikulua

Ordenantza udalbarruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. artikulua

1. Zergaren zergapeko egitatea da Derio udalerriak enpresa jarduerak, jarduera profesionalak edota artistikoak egite hutsa, horiek lokal jakin batean egin edo ez, eta zergaren tarifyan zehaztuta ego edo ez.

2. Zerga honen ondorioetarako, halakotzat joko dira ganadu enpresen jarduerak, izaera independentea dutenean eta meatzaritza, industria, merkataritza eta zerbitzuen jarduerak. Hortaz, ez dira halakotzat joko nekazaritza jarduerak, menpeko abeltzaintza jarduerak edota baso eta arrantza jarduerak, eta horietako batek ere ez du osatuko zergapeko egitatea.

3. Aurreko atalean aurreikusitakoaren ondorioetarako, menpeko ganadu jardueratzat joko dira jarraian adierazitako kasuren batean jasota dauden abelburuen multzoak:

a) Funtsean abereen jabeak nekazaritza edo basogintza aldetik ustiatzen ez dituen lurretan bazkatu edo elikatzen direnak.

b) Landa finketatik kanpo ukuiluratutakoak.

c) Larrez edo mugartez aldatzen dena.

d) Finkatik kanpo ekoizten diren pentsuez elikatzen dena.

4. artikulua

1. Enpresa, lanbide edo arte jardueratzat hartuko dira honako hau betetzen duten jarduerak: ekoizteko bideak eta baliabideak edo horietako bat norbere kontura antolatzea, ondasunen edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku hartzeko asmoz.

2. Zergapeturiko jardueren edukia zergaren tarifetan ezarri da.

5. artikulua

Zergapeturiko jarduerak gauzatzen direla frogatzeko, zuzenbidez onar daitekeen edozein bide, eta, bereziki, Merkataritza Kodearen 3. artikuluan ezarritakoak beteko dira.

6. artikulua

Honako jarduera hauek gauzatzeak ez du zerga honen zergapeko egitaterik ekarriko:

1. Enpresatako aktibo finkoko ondasunak besterentzea, baldin eta ondasun horiek besterendu baino bi urte lehenago aktibo ibilgetu gisa ageri izan badira inbentarioan; eta saltzaileak berak erabiltzen zituen ondasunen salmenta, baldin eta horiek denboraldi berean erabili baditu.

2. Norbanako lanak edo lanbide zerbitzuak ordaintzeko jasotzen diren gaien salmenta.

3. Establezimendua apaintzeko erabiltzen diren gaiak erakustea.

Aitzitik, zergapean egongo dira bezeroei erakustekoak diren gaien erakusketak.

4. Eragiketa edo egintza bakanen bat burutzea, txikizkako salmenta denean.

III. SALBUESPENAK

7. artikulua

1. Honako hauek ez dute zerga ordaindu behar izango:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta toki erakundeak, bai eta horien administrazio erakunde autonomoak ere.

b) Nazioarteko itun edo hitzarmenak direla-eta zerga ordaintzetik salbuetsita dauden subjektu pasiboak.

c) Gizarte Segurantzaren eta indarreko legeriaren arabera eraturik dauden mutualitateen eta montepioen kudeaketa-erakundeak.

d) Ikerkuntzarako erakunde publikoak eta maila guztietako ikastetxeak, baldin eta horien kostuak, Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, edo toki erakundeen edo herri onurarako fundazio ongileen funtsekin osorik ordaintzen badira, nahiz eta salbuespenez establezimenduan bertan irakaskuntza horretan diharduten tailerretako gaiak saldu, betiere salmentaren dirua soilik lehengaiak erosteko edo establezimenduei eusteko erabiltzen bada, eta ez norbanakoek edo gainontzekoek erabiltzeko.

e) Urritu fisikoen, psikikoen eta sentimenezkoen elkarreak eta fundazioak, irabazi asmorik gabeak, minusbaliatuen irakaskuntza, hezkuntza, errehabilitazioa eta zaintzarako egiten dituzten jarduera pedagogiko eta zientifikoengatik eta laguntzarako eta lanbiderako jarduerengatik, nahiz eta helburu horietarako tailerretako gaiak saldu, betiere salmentaren dirua soilik lehengaiak erosteko edo establezimenduari eusteko erabiltzen bada, eta ez norbanakoek edo gainontzekoek erabiltzeko.

f) Gurutze Gorrikoak eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

g) Jarduera zerga hau garatzen den lehenengo bi zergaldietan abiarazten duten subjektu pasiboak.

Ondorio horietarako, jarraian adierazitako kasuetan ez da ulertuko jarduera bat abiarazi dela:

1. Jarduera lehenago beste titulartasun batekin egin bada. Kasu horretan ulertuko da, besteak beste, bat-egitea edo bereiztea egon dela edota jardueraren beste adar batzuk elkartu direla.

2. Subjektu pasiboa sozietate talde baten zati gisa hartuko da, Merkataritza Kodearen 42. artikularekin bat etorriz, taldea osatzen duten enpresetako batek ere aurretiaz gauzatu ez duen jarduera berria bada izan ezik.

3. Jarduera bera gauzatu duten 100eko 25 baino gehiagoko partaidetza duenean.

Aurreko zenbakietan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera berdina gauzatzen dela ulertuko da berau Zergaren Tarifen talde berean sailkatuta dagoenean.

h) 2.000.000 eurotik beherako eragiketa kopurua duten subjektu pasiboak.

Ez egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapekoei dagokienez, salbuespena establezimendu iraunkorrean dihardutenek soilik aplika dezakete, baldin eta beraien eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa bada.

Nolanahi ere, salbuespen hau aplikatzeko ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez izatea % 25etik gorako partaidetza emanda letra honetan eragiketa bolumenari buruz

ezarritako betekizuna betetzen ez duten enpresei, salbu eta sozietateen gaineko zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 59. eta 60. artikuluetan, hurrenez hurren, aipatu arrisku kapitaleko fondo edo sozietateak edo sustapeneko sozietateak direnean, eta partaidetza sozietate edo fondo mota horien sozietatearen xedearen betekizunaren ondorio denean.

Letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketa bolumena sozietateen gaineko zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 2. artikuluko 7. atalean aurreikusitakoaren arabera ezarriko da.

2. Sozietateen gaineko Zergaren eta ez egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboaren eragiketen bolumena honako hau izango da: aitorpena zerga zorra sortu den urtearen aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako sozietate zibilen eta erakundeen eragiketen bolumena zerga honen ziozko zorra sortu den urtearen azken aurreko urtekoa izango da. Zergaldia urtebete baino laburragoa izanez gero, eragiketen bolumena urtebetekoa izango da.

3. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko, hark eragindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Erakundea Merkataritza Kodearen 42. artikuluekin bat etorritik sozietateen talde baten parte denean, arestian aipatutako magnitudeak adierazitako taldekoak diren erakundeen multzoari egokituko zaizkio.”

4. Ez egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapekoen kasuan, Espainiako lurraldeko establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakizkiekeen eragiketen bolumena hartuko da kontuan.

i) Irabazi asmorik gabeko erakundeak, otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren 9. artikuluan adierazten diren ustiategi ekonomikoei dagokienez. Hala ere, aipatu erakundeek zerga horren matrikulan alta eman izanaren aitorpena aurkeztu beharko dute, baita bajaren aitorpena ere jarduera eteten bada.

Salbuespen hori aplikatzeko orduan, irabazi asmorik gabeko erakundeek otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren 16. artikuluko 1. atalean araututako aukeratzeko eskubidea Udalari jakinaraztearekin baldintzatuta egongo da, baita aipatu Foru Arauaren II. tituluan jasotako zerga erregimen bereziari buruzko kasuen baldintzak betetzearekin ere.

2. Aurreko ataleko d) eta e) letretan araututako onurak eskatu egin beharko dira eta eman egingo dira, bidezkoa denean, alderdiak hala eskatuta.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

8. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34. eta 35. artikuluetan zehazten diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, betiere Derio udalerrian gauzatzen badute zergapeko egitatea sortzen duten edozein jarduera.

Aurreko artikuluko lehenengo ataleko a), b), c) eta f) letretan zehazten diren subjektu pasiboek ez dute aurkeztu behar izango zergaren matrikulan alta eman izanaren aitorpena.

V. ZERGAREN KUOTA

9. artikulua

Zerga kuota zergaren tarifak aplikatzearen emaitza izango da, dagokion Foru Arauan jasotako aginduekin eta horiek osatu eta garatzen duten xedapenekin bat etorritz. Hartara, haztapan koefizientea ezarri da udalerrian, koefiziente bakarra eta egoeraren indizea ezarriz.

10. artikulua

Aplikatzekoak izango dira apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu arauemailean jasotako zergaren tarifak, edo ezar daitekeen beste edozein.

11. artikulua

Tarifa horien gainean, segidan aplikatzekoa izango dira haztapan koefizientea (eragiketen bolumenaren arabera), koefiziente bakarra eta udalerraren barruan establezimenduaren egoera fisikoa haztatzen duen indizea, indarrean dagoen legerian eta artikulua honetan ezarritako baldintzei jarraikiz.

Nolanahi ere, zergaren tarifetan finkatuta dauden kuota probintzialen eta estatalen gainean haztapan koefizientea aplikatuko da.

1.- Haztapan koefizientea eragiketen bolumenaren arabera:

Udalak zergaren tarifetan finkatuta dauden gutxieneko udal kuotak gehituko ditu, eta horretarako, subjektu pasiboen eragiketen bolumenaren arabera zehaztutako haztapan koefizientea aplikatuko du, honako koadro honi jarraikiz:

Eragiketen zenbatekoa (euro)	Koefizientea
2.000.000,00 eta 6.000.000,00 bitartekoa.....	1,20

6.000.000,01 eta 10.000.000,00 bitartekoa.....	1,22
10.000.000,01 eta 50.000.000,00 bitartekoa.....	1,24
50.000.000,01 eta 100.000.000,00 bitartekoa.....	1,27
100.000.000,00 kilotik gora.....	1,30
Eragiketen bolumenik gabe.....	1,25

Atal honetan aipatutako koefizientea aplikatzeko, subjektu pasiboaren eragiketen bolumena berak egindako ekonomi jarduera multzo osoa izango da, eta ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauko 5.artikuluko 1. ataleko h) letran aurreikusitakoaren arabera zehaztuko da.

2. Koefiziente bakarra

Aurreko atalean adierazitako koefizientea aplikatzearen ondorioz gehitutako kuotak aldatu egingo dira horien gainean Derio udalerrian gauzatutako jarduera guztietarako koefiziente bakarra aplikatzearen bidez: 1,82.

3. Egoeraren indizea.

Aurreko ataletan adierazitako koefizienteek gain, Udalak Derio udalerraren baitan egoera fisikoa haztatzeko indizeen eskala bat ezartzen du, dagoen kalearen kategoriari jarraikiz. Bada, hori aplikatu beharko da aipatu koefizienteak aplikatzearen ondorioz aldatutako kuoten gainean.

Indize horiek Ordenantza honen I. Eranskinean zehazten dira.

VI. HOBARIAK

11 bis artikulua. Hobariak

1. Honako hauek zerga kuotaren % 25eko hobaria jasoko dute:

1.a) Edozein jarduera ekonomiko abiarazten dutenak eta udal kuotaren bidez zergak ordaintzen dituztenak horri dagokion bigarren zergaldia gauzatu ondorengo bost urteetan.

Hobaria ezartzeko beharrezkoa izango da jarduera ekonomikoa aurretiaz beste titulartasun batekin gauzatu ez izana. Jarduera lehenago beste titulartasun batekin egin dela ulertuko da, besteak beste, jardueraren bat-egitea, bereiztea edota jardueraren beste adar batzuen elkarketa gertatu dela.

Hobaria ezartzeko epea iraungi egingo da martxoaren 17ko 2/1992 Foru Dekretu arauemaileak onesten duen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren 5. artikulua 1. ataleko g) letran aurreikusitako salbuespena amaitzen denetik aurrera bost urte igarotzen direnean.

Hobaria tarifaren kuotak osatzen duen zergaren kuotari ezarriko zaio, eta aldatu egingo dira, bidezkoa bada, Ordenantza honetan aurreikusten diren koefiziente eta indizeen bidez.

Hobari hau aipatu 2.a) letraren hobaria aplikatzearen emaitzazko kuotari ezarriko zaio.

2. Honako hauek zerga kuotaren % 50eko hobaria jasoko dute:

2.a) Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko urriaren 14ko 9/1997 Foru Arauaren IV. Tituluan zehazten diren kooperatibak eta horiei dagozkien elkarteak, federazioak eta konfederazioak.

2.b) Ingurumen kudeaketarako sistemen ziurtagiriak dituzten subjektu pasiboak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren babeserako otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean adierazten diren jarduera sailkatuetan diharduten enpresak direnean, betiere EMAS Europako erregelamenduak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. JEZen kuotaren gaineko hobaria ezarri da hobaria ezartzeko epearen aurreko zergaldian kontratu mugagabea duten langileen plantillaren batez bestekoa handitu duten subjektu pasiboentzat, enplegua sortzeagatik.

Hobarien ehunekoak kontratu mugagabea duten langileen plantillaren batez bestekoaren handitze mailaren arabera ezartzen dira, honako taula honekin bat etorritz:

Langileen plantilla handitzea:

Kontratu mugagabea duten langileen plantilla handitzea.	Eman beharreko hobariaren ehuneko:
% 0,1etik 5era.	% 10
% 5,1etik 10era.	% 20
% 10,01etik 15era	% 30
% 15,01etik 20ra	% 40
% 20 baino gehiago.	% 50

VII. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

12. artikulua

1. Zergaldiak bat egiten du urte naturalarekin, alden aitorpenetan izan ezik, kasu horietan jarduera hasten denetik urte naturala amaitu arteko tartea hartuko baita kontuan, artikulua honetako 2. ataleko 2. paragrafoan xedatutakoan eragin gabe.

2. Era berean, jardueran baja ematekotan, kuotak hainbanatu ahal izango dira hiruhileko naturaletan, aipatu etetea sortu denekoa barne.

3. Ikuskizunei dagokienez, kuotak jarduera isolatuek ezartzen dituztenean, sortzapena horietako bakoitza egitean sortzen da, eta dagozkion aitorpenak aurkeztu beharko dira arauz ezartzen den moduan.

VIII. KUDEAKETA

13. artikulua

1. Zerga horren matrikula egiten denetik aurrera kudeatzen da. Matrikula hori urtero egingo da eta jarduera ekonomikoak, subjektu pasiboak, zerga zorrak, eta, hala badagokio, Foru Errekarguak barne hartzen dituen erroldez osatuta egingo da. Matrikula jendaurrean ikusgai egongo da udaletxean, indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzei jarraikiz.

2. Subjektu pasiboek alta eman izanaren aitorpenak aurkeztu beharko dituzte eskumeneko administrazioan, eta hori matrikulan sartzeko behar dituzten elementu guztiak adieraziko dituzte, aurreko paragrafoan agertzen diren baldintzei jarraikiz eta arauz ezartzen den epearen baitan. Jarraian, eskumeneko administrazioak dagokion likidazioa egingo du, eta hori subjektu pasiboari jakinaraziko zaio. Ondoren, hark dagokion diru-sarrera egin beharko du.

Horrez gain, subjektu pasiboek zergapetutako jarduerak gauzatzean sortzen diren aldaketa fisikoak, ekonomikoak edo juridikoak jakinarazi beharko dituzte, betiere zerga honen ondorioetarako garrantzia badute, eta arauz ezarritako epe eta baldintzen arabera formalizatuko dira.

Zehazki, Ordenantza honen 7. artikuluko 1. ataleko h) letran aurreikusitako salbuespena aplikatu beharrik ez duten subjektu pasiboek Zerga arloko Administrazioari jakinarazi beharko diote eragiketen bolumena. Era berean, subjektu pasiboek eragiketen bolumenean sortzen diren aldaketen berri eman beharko dute, aldaketa horrek Ordenantza honen 7. artikuluko 1. ataleko h) letran aurreikusitako salbuespena aplikatzeko edo ez aplikatzeko aldaketa edota eragiketen bolumenaren arabera aurreikusitako haztapan koefizientea aplikatzeko orduan kontuan hartu beharreko tartean aldaketa dakarrenean (aukeran aplika daiteke udal kuotan zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboentzat, nahitaezkoa baita probintzia eta estatu mailako kuotan zergak ordaintzen dituztenentzat).

3. Zergak ikuskatzeko edo altak zein jakinarazpenak formalizatzeko jardueretatik eratorriko erroldetan jasotzen diren datuak sartzea, kentzea edo aldatzea administrazio egintzatzat joko da, eta errolda aldatzea ekarriko dute. Erroldan jasota dauden datuekin loturiko matrikulan edozein aldaketa egitekotan, aurretik aldaketa bera egin beharko da nahitaez.

4. Zerga hori autolikidazio erregimenean eskatu ahal izango da arauz ezartzen diren baldintzei jarraikiz.

14. artikulua

1. Borondatezko epean zein premiamendu bidean salbuesteko, kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko eskumenak kasuan kasuko jarduerak gauzatzen diren udalerriko Udalari dagozkio.

2. Eskumenen arloan, Udalari dagokio honako hauek jendaurrean ikusgai jartzea: matrikula, errekurtsio eta erreklamazioen ebazpenak, zergaren kobrantza, kobratzeko kasuan kasuko ordainagiriak egitea, salbuespenak eta hobariak ezartzea eta zerga honen harira zergapekoari laguntzeko eta informazioa emateko jarduerak.

3. Berariaz Foru Aldundiari dagokio matrikula sortzea eta gordetzea, baita jarduera ekonomikoak kalifikatzea eta kuotak ezartzea ere.

Horri eragin gabe, egintza horien jakinarazpena udalek edo Foru Aldundiak gauzatu dezake, zerga zorrak zehaztera daramaten likidazioen jakinarazpenekin batera.

4. Udalek Foru Aldundiarekin batera lan egingo dute zergaren matrikula sortu eta gordetzeko, baita jarduera ekonomikoak kalifikatzeko eta kasuan kasuko kuotak ezartzeko ere.

5. Salbuespenak emateko eta ukatzeko beharrezkoa izango da Foru Aldundiari jakinaraztea hartzen den ebazpena.

15. artikulua

Jarduerak kalifikatzeko eta kuotak ezartzeko egintzen aurka jartzen diren errekurtsioak eta erreklamazioak indarrean egongo dira Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 156tik 1698ra bitarteko artikuluetan xedatutakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundia izango da aipatu errekurtsioak eta erreklamazioak ebazteko eskumeneko organoa. Errekurtsio eta erreklamazio horiek aurkezteak ez du egintzak betearaztea eragotziko.

16. artikulua

1. Dagokion matrikula Foru Aldundiak egingo du eta ondoren Udal honi igorriko dio.

2. Udalak hori jaso ondoren, jendaurrean ikusgai jarriko du hamabost egunez, ukitutako zergadunek azter dezaten, eta hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

17. artikulua

1. Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, Foru Aldundiari bidaliko zaio emaitzaren egiaztagiria, hark onets dezan.

2. Behin hori onetsita, Udalak dagozkion ordainagiriak egingo ditu, Udal Zerga kudeatzeko Bizkaiko Foru Aldundiarekin edota beste edozein erakunderekin dauden lankidetzaz hitzarmenetan eta erabakietan eragin gabe.

IX.- XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengoa. Zerga hau indarrean sartzen denean Merkataritza eta Industria Jardueren Lizentzia Fiskalean edo Lanbide eta Arte Jardueren Lizentzia Fiskalean edozein motatako zerga hobaria dutenek, hori izaten jarraituko dute aipatutako lehenengo zergan, berau iraungi arte, eta hobari hori jasotzeko amaierarik ez dutenen kasuan, 1994ko abenduaren 31ra arte, hori barne.

Bigarrena. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasiboak dagokienez, 7/2003 Foru Araua indarrean sartzean, zerga ordaintzetik salbuetsita egon gabe aipatu arauan xedatutakoarekin bat etorritik, kuotan hobariak aplikatzen dituztenek apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu arauemaileak (horren bidez onetsi dira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifak eta aginduak) onetsitako tarifen bigarren ataleko 1. ohar orokorrean arestian araututako jarduerak abiarazteagatik, hobari hori aplikatzen jarraituko dute, aipatu arau orokorrean aurreikusitako baldintzei jarraikiz, hobaria aplikatzeko dagokion epea amaitu arte.

Hirugarrena. 7/2003 Foru Araua indarrean sartu baino lehen abiarazitako prozedurei dagokienez, ez dira aplikatuko eta aurreko araudiaren arabera egongo dira indarrean.

X.- AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2017ko urriaren 24an eginiko bileran aldatu da, indarrean sartuko da 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarrean jarraituko du berau aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean. Ordenantza Fiskal honen aldaketa partzialik egitekotan, aldatu gabeko artikuluek indarrean jarraituko dute.

Tasaren arauketan aurrekontuei buruzko Foru Arauek edo zuzenean aplikatzekoak diren beste edozein arau edo xedapenek sartzen dituzten aldaketek, bidezkoa bada, kasuan kasuko isileko aldaketa eragingo dute Ordenantza Fiskal honetan.

I. ERANSKINA

1. Udalerriko herri bideen sailkapena:

- 1. kategoria: 2,00 indizea

Aresti, Artxanda, Astintze, Berriaga, Etxezarre, Idorsolo, Isumendi, Iturritxualde, Kurribilanda, Larrauri, Lobaibaia, Santi Mami, Txorierriko Etorbidea, Ugaldeguren Poligonoa 1 eta Parke Teknologikoa (Laga, Ibaizabal, Ereaga eta Astondo) kaleak eta jarraian adierazitako kaleetako zenbaki bakoitiak: Santo Domingo etorbidea, Untzagaibaia, Zintxudi, Orroño, Errotazarre, Beresi eta Landatxu, industria sektoreetan edo enpresa poligonoetan dauden kale berrietan eragin gabe.

- 2. kategoria: 1,60 indizea

Honako kale hauek: Aiarza, Aizkorri, Aldekone plaza, Almazene, Anboto plaza, Aralar, Arantzazu, Beheko, Berreaga, Besaide plaza, Bestorrene, Erdiko, Euskalherria, Ganburu, Ganekogorta, Ganguren, Gaztelumendi plaza, Gernikako Arbola Elorrea, Etorbidea, Goiko, Goikoetxe, Gorbea, Herriko Plaza, Jata, Kimeretxe Plaza, Kolutza plaza, Landa Etorbidea, Larrabbarri Ibilbidea, Marikobaso, Mikel Deuna Plaza, Oiz, Pagasarri, Pakearen plaza, Santiago Etorbidea, Sollube, Taileri, Txozna Auzoa, Unbe, Untzaga Ibaia, Urbasa gunea, Uribe, Urkiola, Zeroetxe plaza, Santiago Etorbidea, Zubiko, Gastañatxu, Europa, Ganbe, Beresi, Landatxu, Artegane, Aldekonzarre, Errementariñe, Goiri, Zarandoa, Lainomendi eta Errekatxueta, hirigunean dauden kale berrietan eragin gabe.

Lainomendi kaleko 1etik 3ra bitarteko zenbakiak; Mungialde etorbideko 1etik 28ra bitartekoak; Txorierriko etorbideko 1, 3, 5 eta 7 zenbakiak eta Santo Domingo etorbideko zenbaki bakoitiak.

- 3. kategoria: 1,50 indizea

Mungialde etorbideko 29tik 39ra bitarteko zenbakiak.

2. Zerga honen harira, aipatutako kategoria batean ere sartzen ez diren sortutako jardueraren bat gauzatzekotan, horiek hirugarren kategorian sartuko dira.